



Córdovilla/Goñi/Bentez

Leitzan dagonekoz kobratuxe dituzte loteriaren diruak

Amazabal auzoa ez ezik, herri osoa harrotua dabil abenduaren 22az geroztik. Eta egia esan, ez da gutxiagorako. Diru asko da loteriarekin irabazi dena, eta gainera, jendearen artean dextente partitua suertatu da. Inondik ere, ederki nabarituriko dira, luze gabe, loteriaren milioiak. Diru 'garbia' baita, gainera. Jakina denez, Loterian irabazitako diruengatik ez da

zegarik ordaindu behar izaten. Joan den astean hasi ziren dirua kobratzen boletoa ongi gorde zutenak, zeren, Jose Luis Zunzunegik esaterako, bide neketsuagoa ibili beharko du galdutako boletoaren saria kobratzeko. Izan ere, gauza xelebrea gertatu zaio Jose Luisi. Urkiola harategian erositako loteriare-

Urkiola harategian 5.040 milioi pezeta (202 milioi libera) banatu ziren lagun eta bezeroen artean

kin 30 milioi pezeta kobratuko lituzke egunotan boletoa galdu ez balu. Erreklamazioa egin du. Ikusi behar nola bukatzen den. **21**



3 Elkarrizketa:
"Bake prozesuan politikoak baino askoz aurrerago doa gizartea"

Patxi Zabaletaren hitzak dira, 3. orrialdeko elkarrizketan irakurriko dituzunak. Egoera politikoari errepasso ttiki bat eginarazi diogu leitzarrari. «Nafarroan bizi dugun egoera surrealista da» dio Zabaletak.

29 Kirolak:
Haurren Futbol Txapelketa Lesakan

Hamabortzero 140 haur biltzen dira Baztan, Malerreka eta Bortzirietatik bilduak.

**MUEBLES
METS**
mobleak proiektuak



NEURRIRA

EGINDAKO

MOBLEAK

Bidasoa 45-60

BERA

Tfnoa: 948 630537



ttipi-ttapa



**Leitzan dagonekoz
kobratuxe dituzte
loteraren diruak**

**Bidali TTIPI-TTAPA
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo familiakoei**

**Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu
behar dira.**

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188

DATUAK.....

❖ Leitzar hau ezaguna da idazle, abokatu eta HBko kide historikoa delako, baina horrez gain Lizarrako Akordioaren sinatzailea ere bada.

❖ Gaur egungo egoera politikoan estatuaren borondate eza eta horren parean gizarteak bakea lortzeko duen gogoaz azpimarratu dituzte batez ere.

❖ Bertzalde, Nafarroan bizi dugun egoera surrealista dela dio, eta luze gabe Nafarroako mapa politikoan aldaketak izanen direla.

❖ Ekainean Nafarroan eginen diren hauteskundeetan Euskal Herriarrok aurkeztuko ote den «ez dago oraindik erabakia».

✍ **Patxi ZABALETA** Abokatu, idazlea eta HBko parlamentaria

“Bake prozesuan politikoak baino askoz aurrerago doa gizarteak”

NOLA IKUSI DUZU BAKE PROZESUAK ORAIN ARTE EGIN DUEN BIDEA?

Prozesu honen berezitasuna Euskal Herriko indar politiko eta sozialon artean egiten ari garela da. Ez da estatuaren eraginetik sortua. Estatuan badaude suetenari eta preso politikoaren egoerari eta bake prozesu guziari edukin politikoak kendu nahi diotenak, eta horiek bake prozesuaren beraren kontra ari dira. Izan ere, ETaren izatea arrazoi politikoaren ondorio da, eta konponbide politikoaren bitartez bakarrik gaituzteko den arazoaren ikurra da.

PRESEN AFERA DA MOMENTU HONETAN MUGARRI GARRANTZITSUENETAKOA, EZTA?

Nere ustez, Lizarrako akordioa sinatu dutenek presoek buruz hartu duten erabakia garrantzitsua da: bake prozesuak aurrera egiten duen heinean preso politiko guziek aske gelditu behar dutela, bainan horren trukean ez dela deus eman behar, alegia.

Estatuak, berriz, borondate eza erakutsi du orain arte. Presoekin egin dituzten aldaketak mixerableak dira. Horrelako jokabideak ez du bake prozesu batean aurrean eduki beharko lukeen duintasunik, begirunerik eta ezta zintzotasunik ere. Baina dena



«Estatuaren jokabidea ez da zintzoa bake prozesu baten aurrean»

den estatua ez da bake prozesu honetan protagonista izaten ari eta prozesuak aurrera jarraituko du.

ESTATUAK AMORE EMAN BEHARKO DUELA USTE DUZU ORDUAN?

Bai, zalantzarik gabe. Iduritzen zait badaudela oraindik zailtasun asko baina baita aurrerapauso ukaezinak ere bai, gizartearen batez ere. Izan ere, askoz au-

rrerago dihoa gizarteak politikoak baino. Politikoak atzean gelditzen ari dira, eta Nafarroa duzu adibiderik garbiena.

LASTER NAFARROAKO MAPA POLITIKOAK ALDATUKO DELA PENTSATZEN DUZU, BERAZ.

Dudarik gabe. EHren inguruan sortzen ari garen mugimendu politikoak toki berezia bete beharko du gainera.

ZER GAINERATUKO ZENUKE NAFARROAN BIZI DUGUN EGOERARI BURUZ?

Nafarroan bizi den egoera surrealista da. Esaten zutenak Nafarro-

ako herriak mintzatu behar zuela –UPNkoak adibidez–, horiek dira herriaren erabakiak galarazi edo eragotzi nahi dituztenak. Azkeneko adibidea Sanzen barre-garrikeria da. Barregarri gelditu baitzen Elizondon emandako hitzaldian, eta ez bakarrik euskararen inguruan egindako funtsik gabeko aipamenetan. Guk eskatutako erreferendumari buruz baiezkotzen zuten berak, baina belarrietatik tiratu diote, eta atzera egin behar izandu du.

► *“Bake prozesuak aurrera egiten duen heinean presoek aske gelditu behar dute baldintzarik gabe. Hori diote Lizarrako sinatzaile guziek.”*

TESTUA:
ASIER GOGORTZA
ARGAZKIA:
ARGIA ASTEKARIA

LEURTZAKO URTEGIAN

800 negel hartzeagatik milioi bateko isuna

Negala, ihela, negela, xetela... modu bat baino gehiago bada gure eskualdean anfibio ttiki hau izendatzeko.

Negel gorriak, negua sartzan delarik mendiko harizti eta pagadietatik putzuetara jausten dira errutera. Urrotz eta Labaien artean dagoen Leurtzako urtegian, adibidez, ikaragarrizko negel gorri koloniak biltzen dira sasoi honetan.

Horretaz oharturik, isilpeko ehiztariak harrapakin errexa topatu dute Leurtzan, eta gaua sartzan delarik joaten dira negel bila.

Gero, sasoiak jaki berexi bezala eskaintzen duten jatetxeei saltzen dizkiete zakuka.

Bainan legez debekatua dago negelak harrapatzea, eta eginahalak egiten dira inguru hori kontrolatua edukitzeko. Berriki bi iruindar harrapatu dituzte 800 negelekin, eta milioi erdiko isuna jarri diote bakoitzari.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ASIER GOGORTZA

Ez omen da, gainera, bi lagun hauek Leurtzan negelak hartzen harrapatu dituzten lehendabiziko aldia. Nafarroako Gobernuak bertze milioi bateko zigorra jarri zien 1996an delitu berberagatik. Oraingo honetan Eusebio Moreno eta Miguel Angel Ciria iruinsemekek 470.001 eta 520.002 pezeta ordaindu beharko diote administrazioari, ondoko legehauste hauengatik: espezie ez-babestuak baimenik gabe eta legez kanpoko tresneriarekin (argi artifizialarekin) harrapatzea, eta sasoi kanpo arrantzan aritzea. Horrez gain, lizentziarik gabe arrantzatzeagatik 50 mila

pezeta gehiago ordaindu beharko du Miguel Angel Ciriak.

Bakoitzak 400 negel hartuak zituen Polizia Foralak ur bazterrean atzeman zituenerako, bainan berehala urera itzuli behar izan zituzten, oraindik bizirik zeuden eta. Eusebio Moreno delakoak bere haserrea agertu zion Nafarroako egunkari bati. Izan ere, bere ustez negel gorria ugari dago Nafarroan eta inguruko probintzietan, eta ez omen dago galtzeko arriskurik. «*Nik lagun batzuei saltzen dizkiet. Langabeziaren nago eta diru pizar bat ateratzeko modua ematen dit*» adierazi du.

1.200 ptatan dozena

Jatetxeetara saltzen dituzte



gisa honetan harrapatutako negelak, gero kartan sasoiko jaki bezala eskaintzeko. Negel gorri dozena baten truke 1.000-1.200 pta inguru ordaintzen omen dute jatetxe horiek.

Hala ere, negel gorria ez da batere ohiko platera, hemen inguruan ez behinik-behin. Gainera, Frantzia aldean-eta hain famatuak diren negel-hanka horiek ez dira negel gorrienak izaten, berdeenak baizik. Mikel Mugiro biologo arizkundarrak baieztatu digu hori: «negal-haztegiak ere badira orain, negel berdeak hazten dituztenak normalean -errexago hazten baitira-, eta horiek inportatu egiten dira. Berde horiek Frantzian betitik jan direnak dira, eta nonahi eros daitezkeenez, negel gorriak kapritxo haundia dutenentzat bakarrik izanen dira...».

1981 ean espezie babestua izendatu zuten

Mugiro berak erran digunez, aspaldian, gure herriotan ba omen zen negelak harrapatzeko usadiorik. «Gero komertzializatzen hasi zen, eta horregatik orain dela urte franko debekatu egin zuten. Negel gorria izanen zen, seguraski, babestu zen lehenbiziko espeziatarik».

Orain dela 15-20 urte, izan ere, aunitz murriztu zen espezie hau, Kinton edo Leurtza bezalako tokietan zakuka hartzen baitziren. Galtzen ari zela ikusirik, 1981-ean espezie

babestua izendatu zuen Nafarroako Gobernuak, eta negel gorriak harrapatzeagatik isun ikaragarriak jarri zituzten bolada batean: milioi bat eta 10 milioi tartekoak. Duela urte batzuk TTIPI-TTAPAN bertan argitaratu genuenez, Nafarroako Gobernuak 4 milioi pezetako multa jarri zien bi almandoztar eta olabestar bati, ustez Leurtzako urtegian 5 negel hartu zituztelakoz.

Babestua ez, baina bai debekatua

Legeak erraten duenari begiratu ezker, ikusiko dugu 1995. urtetik honat negel gorria ez dela animalia babestuen zerrendan sartzen, eta horregatik nabarmen bigundu direla negelak hartzeagatik jartzen ziren isunak. Hala ere, animalia honen ehiza debekatua dago oraindik orain, ez dagoela



NEGEL GORRIA

Urtetik urtera aldatu egiten da negel populazioa, baina adituak diotenez, lehen negalaskoz gehiago omen zegoen Leurtzako urtegian.

Errutera jausteko orduan Zugarramurdi eta Leitza aldeko populazioak izaten dira goixtiarrenak, urrian hasten dira eta. Leurtzakoak, berriz, ondarrekoetatik izaten dira, urtarrila aldera erruten dute.

Negel gorriak giro hezea behar izaten du, baina horma bota ezker ez du erruten. Leurtzako bezalako putzu eta urtegi gutti dago hemen inguruan, eta leku jakin horietan biltzen dira negel guziak. Horregatik, toki horietan pilaka direla iduri du, baina ez da horrela, inguru guziko negelak biltzen baitira hor.

ko ehizatzen ahal diren espezieen artean sartua. Dena den, multak aldakorak dira, «gaur egungo legeekin negal bat hartu edo 10 hartu ez da berdin, isuna aldatu egiten da kopuruaren arabera», dio Mugirok. ■

Inazio URROZ Urrozko alkatea

«Hemengo jendeak ez du negelak jateko ohiturarik»



Berriki negelak hartzen harrapatu dituzten hoiek ezagunak ziren Urrotzen?

Ez. Nik ez dakit nor diren eta deus ere, zerbait sumatu dut marmaria, baina egunkaritan irakurri dudana bakarrik.

Bertzenaz arratsetan-eta somatzen duzue mugimenta berexirik Leurtza inguruan?

Gutti. Tartean bakarren bat joaten dela gotti eta arraroxamarra egiten zaigu ez ba-

dugu ezagutzen. Baserrikakoa ez den jendea gotti joaten deanean-eta...

Duela 20 urte orain baino franko negel gehiago omen zegoen Leurtzan, eta garai haietan zakuka hartzen omen ziren.

Bai. Ni mutil koxkorra nintzenelarik oroitzen naiz nola etortzen ziren egunero Iruñea aldetik negelak hartzera. Kriston pila hartzen zituzten. Nik beti Iruñea aldeko jendea ikusi dut negelak hartzen. Hemen inguruko jendeak, berriz, ez du negelak jateko ohiturarik. Noizbait beharbada afariren bat egiteko edo horrela bai, baina...

Nola hartzen dituzte? Eskuz eta sarearekin aritzen dira, bietara. Presaren bazterrean jarri eta eskuargiarekin erakarritz.

Eta gero jatetxeetan saltzen dituzte?

Bai. Nik aditua dudanez, lehenago etortzen zen horietako bat behinipin jatetxeko nagusia omen zen.

Baina Polizia Forala ere maiz ibiltzen da Leurtza aldean, ezta?

Bai. Azken aldiaren ez ditut sobera ikusi baina bolada batean edozein ordutan etortzen ziren.

Negelak hartzeaz gain akanpatzea ere debekatua dago Leurtzan. Izan ere, orain dela bi urte Aste Santuan kristoren desastreak egin ziren, bazter guziak hautsiak, dena lurretik botaria...

Leurtzako urtegia oso-osorik Urrozkoa da?

Ez. Goiko presa tikiaren erdia edo gehixeago Labaiengo da. Horregatik Nafarroako Gobernuak urte batean Urrozko guarda kontratatzen du eta hurrengoan Labaiengo.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Frank Dolor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxea,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leiza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Bake prozesuari buruz zer dio jendeak?

UPN eta PSNk zenbait postura aldatu beharko dituzte nahitanahiez



Martin GARDE Garzain

Nik uste dut oraingo bake prozesu hau egiazkoa dela. Alde batetik, bo-

rroka armatua geldirik dago, baina bake prozesu batek hori baino pausu gehiago eskatzen ditu. Bakea, azken finean, herriak bere iritzia agertzeko eta herri bezala bizitzeko gaitasuna duenean etorriko da. Dena den, orain dela hilabete bat baikorrango nintzen bake prozesuaren aitzinean. Sobera oztopo ari dira jartzen. Adibidez, presoengurua gobernuak eman duen pausua eskaxa eta lotzagarrria izandu da. Bake prozesu batean ezin da horren zuhurra izan.

Nafarroari dagokionez bi gauza aipatuko nituzke. Batetik, erranen nuke gizaratek erantzun desberdina ematen duela hauteskundeetan eta bertze gaitan: euskararen inguruan, adibidez. UPNk nola PSNk zenbait postura aldatu beharko dituzte nahitaez, eta beren basteako jendeak beharko du hori eskatu. Gaur egun beldurtuta daudela iduri du.

Bertzalde, lurraldetasunaren auzia da nere ustez korapilorik haundiena. Eman beharreko pausua goxotasun haundiz eman beharko dira hor, baina azken batean, kulturaren bidez lotuta dauden herriek batasuna lortzen dutela pentsatzen dut.

Baikortasuna hedatu da gizaratean, hori garbi somatzen da



Marga ERDOZAIN Doneztebe

Nik uste dut Euskal Herrian abiatu den bake prozesua serioa dela, batez

ere prozesu horretan ze talde politiko inplikatuak dauden ikusita. Orain arte beti ezker abertzalearen inguruko ekimenak izaten ziren, baina Lizarrako akordioaren ondorioz ikusi da esparrua dexente zabaldu dela. Hor daude Ezker Batua, EA eta EAJ bezalako indar politiko inportanteak, eta denen artean presio handia egiten ahal dela uste dut.

Hala ere badira bertze talde politiko batzuk prozesuan parte hartzen ari ez direnak, eta hoiak dira justuan azken hitza dutenak.

Gizaratean bazegoen nolabaiteko nahasmen bat, batez ere ETA zinegotziak hiltzen hasi zenez geroztik. Gero, gainera, Irlandako adibidea ere hor dugu. Horregatik baikortasuna hedatu da orain gizaratean, hori garbi somatzen da. Bertzalde, gu herri ttiki batean bizi gara, eta askotan presioa haundia da, denek elkar ezagutzen baitugu.

Presoen hurbiltzea da eman beharreko pausu garrantzitsu bat. Orain EAJk ere mobilizazioak deitu ditu... azken finean presoengurua eskubideen alde onarpen unibersala lortu da. Ez dakigu hor atzetik zer dagoen, nik uste negoziatzioren bat izan dela abian.

Itxura denez presoek eskubide batzuk dituzte, beraz, bete beharko dira




Felix GONZALEZ Elizondo

Gizaratean bakea lortzeko nahia nabaria zen, eta ETAK su-etena adierazte-

an bakea lor daitekeela pentsatu du gizarate osoak. Eta gizarate osoa diot, ez baita inortxo baztertu behar. Gu mehatxupean egondu gara, eta badirudi interes berezia dugula, baina ez da horrela. Segur naiz eurek ere guk desiatzen dugun gauza bera desiatzen dutela. Espainiako gobernuak pausorik ematen ez duela erratan dute, baina horrelako gauzak ez dira horren erraxak. Nik ez dakit zer gertatzen den Espainiako gobernuaren baitan, baina prozesu honetan interesa badutela, hori seguru.

Baztango UPNn ez gara presoengurua hurbiltzeaz mintzatu. Herriko Etxeko azken plenoan HBko zinegotziak presoengurua moztu bat sartu zuen, eta ni bidai batean nengoan arren, badakit nere kideak abstenitu egin zirela, legealdi guzian zehar egin dugun bezala. Pertsonalki, ordea, preso guzietan eskubide batzuk dituztela uste dut. Ez dakit zein diren, baina itxura denez eskubide batzuk dituzte, eta, beraz, bete egin beharko dira. Presoen eskubideak eta terrorismoaren kontrako politika bateratzea da aterabidea. Honen atzean bake prozesu bat baldin badago presoengurua gaitan lehentasun izan behar du.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☞ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA



Urte berria

Estitxu FERNANDEZ

Doinua: Habanera

Naturak ertamerikan ekarri du hondamena lokatz artean galdurik deiadarrrik gordinena Euskal Herrian ordea bixtu da itxaropena ETAK iragarri baitu mugagabe su-etena mirari kutsuarekin zetorren viagrarena ttipi-ttapa telebista mirari pozgarriena horra hor laburbildurik nahiz ta ez aipatu dena larogeita hemezortzi urteak eman duena.

Patrizio eta Joxelu ilargi eta izarra arratsa argitu duten ia seinale bakarra zeru beltzean oraindik ilunak baitu indarra izar denak ernatzea da herri honen oldarra egoera aldatzeko denok daukagu beharra larogeita hemeretziaren bakearen deiadarra berekin ekarriko du askatasun irrifarra behar bezala agurtu behar baita mende zaharra.

IRAKURLEAK MINTZO

Eskola eredu erdaldunak salatu!

Euskal gizartea euskararen normalkuntza eskatzen ari da behin eta berriz. Baina argi dago hizkuntza bat ezin dela normalizatu dagokion lurraldeko biztanleek ezagutzen ez badute. Euskal Herriko biztanleriaren gehiengo handi batek ez daki euskaraz, eta, beraz, prozesu normalizatzaile bat gauzatu dadin hurrengo belaunaldiak geure hizkuntza jakitea lortu behar da. Horretarako beharrezkoa da ematen zaaien hezkuntzak hori bermatzea. Gainbegiradaxo batek zera diosku: egun ikasten dabilen euskal herritar askok ez du euskaraz jakingo, edo behintzat, ez du eskolan

ikasiko. Eskualdeka alde galantak ematen dira, baina oro har, umeen portzentzia handi batek euskararen ezagutza bermatzen ez duen eredu batetik batean burutzen ari da bere ikasketak (kasurik larrienak euskara ofiziala ez den zonaldeetakoak dira, noski: Iparraldea eta Nafarroako hegoaldea). Ikasle horiek ahalegin pertsonal eta ekonomiko handia egin beharko dute etorkizunean euskara ikasi nahi badute. Bistan dago euskara ezagutzeko eskubidea biztanle orori bermatuko dion eskola plangintza egokitu behar dela, gaur eguneko ereduaren sistema behin betiko gaituzte. Horrexegatik hain zuzen ere Euskal Herrian


Euskarazek irakaskuntzaren loturiko kanpaina hain du.

Urtarrilean zehar EHEk eskola eredu erdaldunen sakaketa egingo du, era bitan: batetik, informazioa emanez (eredu erdaldunak zein eskolatan mantentzen diren aipatu); bestetik, interpelazioen bidez (eskola horiei daukaten erantzunkizuna gogorazi, aurrez aurre edo gutun bitartez). Euskalduntzen ez duten ereduak Euskal Herriari zer nolako kaltea egiten dioten gogoratu nahi dugu. Hemen ez ditugu ezertarako behar.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ



ttipi-ttapa telebistaren programazioa



ASTELEHENA, 18

13:00 **Herriz Herri:** Herrietako berrien bilduma (ortziralekoaren errepika).

21:00 **Berriak**

21:30 **Jokoa Solas:** Asteburuko kirol irudi eta emaitzak Aitor Arozena eta Felipe Saraguetak aurkeztua.



ASTELEHENA, 25

13:00 **Herriz Herri:**
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Asteburuko kirol jardueren errepa-soa.

ASTEARTEA, 19

13:00 **Berriak** (errepika)

13:30 **Jokoa Solas** (errepika)

21:00 / 21:30 **Berriak** Estitxu Fernandezek eskutik.



ASTEARTEA, 26

13:00 **Berriak** (errepika)

13:30 **Jokoa Solas** (errepika)

21:00 **Berriak**
21:00 / 21:30 **Berriak**

ASTEAZKENA, 20

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)

21:00 **Berriak**

21:30 **Bidegurutzean** magazina.

ASTEAZKENA, 27

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)

21:00 **Berriak**

21:30 **Bidegurutzean** Kultur eta gizarte gaien buruzko magazina Jon Abrilek eskainia.



ORTZEGUNA, 21

13:00 **Berriak** (errepika)

13:30 **Bidegurutzean** (errepika)

21:00 **Berriak**

21:30 **Dokumentala**

ORTZEGUNA, 28

13:00 **Berriak** (errepika)

13:30 **Bidegurutzean** (errepika)

21:00 **Berriak**

Sunbillako inauteriak



21:30 **Dokumentala**

ORTZIRALA, 22

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)

21:00 **Berriak**

21:30 **Herriz Herri**

ORTZIRALA, 29

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)

21:00 **Berriak**

21:30 **Herriz Herri** Herrietako berrien bilduma herri bakoitzeko berriemileen eskutik, eta Nerea Alzurik aurkeztua.



 **Patxiku IRISARRI** *Etxalartarra EHNEko ordezkaria*

Nekazal hauteskundeak: bakoitza bere tokian



Orokorrean hauteskunde-en balorazio nahiko positiboa egin behar dugu. Nafarroako mendialdean

%30a lortzea espero genuen, eta hori gainditu egin dugu, %33a lortuz.

Guk bagenekien Iruñeatik goiti nahiko lan polita egiten ahal genuela eta halaxe izandu da. Hemen ia herri guzietan aisa irabazi dugu, eta aipatu baita ere, Iruñeatik beheiti poliki-poliki ari garela indarra hartzen nahiz herri gehienetan UAGN gailendu egin den.

Historia pixko bat egiten badugu, orain dela 20 urte egin ziren nolabaiteko nekazal hauteskundeak. Orduan UAGN sindikatua bakarrik zegoen, baina duela 12 urte sindikatu horren barrenean korrante desberdinak sortu ziren. Nekazari zenbaitzuk, UAGNk Iruñeatik goiti abeltzantzantz ez zuela nahiko indar egiten ikusita, EHNE sindikatua sortu zuten.

Orain hirugarren sindikatu bat ere aurkeztu da hauteskundeetan: UPA, Union de Pequeños Agricultores. Hauek ez dute orain arte deus haundirik egin Nafarroan, eta hori botu kopuruan ere nabaritzen da. Nekazal Ganbaran ez du ordezkariarik izanen, botuen %9a bakarrik atera duelako.

Mahaia otsailaren erdialdera osatuko da definitiboki. Nekazal Ganbaran 17 lagun izanen dira, 11 UAGNkoak eta 6, berriz, EHNEkoak.

Sei hioen artean gure eskualdeko bi baseritar egonen dira. Batetik, Mikel Petrirena sunbildarra, hauteskundeetan gure zerrenda burua izan du dena eta momentuan EHNEko idazkari nagusia dena. Lehenago zerriak zituen, baina orain kendu egin ditu haragiko behi gorriak paratzeko. Bertzea Juanito Arretxea gartzaindarra dugu, nahiko pertsona ezaguna Baztan aldean. Gaur egun esneko behiak ditu. Gero, aipatu UAGNk Almandozko ordezkari bat ere baduetila, Begoña Sanzberro, eta

Duela 12 urte UAGNren

barrenean korrante

desberdinak sortu ziren.

Nekazari zenbaitzuk,

UAGNk Iruñeatik goiti

abeltzantzantz ez zuela

nahiko indar egiten ikusita,

EHNE sindikatua sortu zuten.

horrek zerriak ditu.

Guk helburu bat behintzat bete dugu: bagenekien Nafarroan bagenuela ordezkarrizta bat, baina ez zegoen datuetan zehaztua. Aurten dirulaguntzak banatzerakoan argi ikusi da: lehenbizian diru guzia UAGNri eman zioten, baina Iruñean zenbait protestaldi egin eta gero parlamentura ere joan zen gai hori. Azkenean diru kopuru bat ematea lortu genuen, UAGNren erdia hala ere. Hemendik aitzinera lehen bezala lanean segituko dugu, eta ikusiko dugu hemendik 4 urtera zer egiten dugun.

 **Ixabel ALEMAN** *Baztango Mendigoizaleak taldekoa*

Mendiko aseguruak direla eta



Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioen artean sortutako istiluak direla eta, Baztango Mendigoizaleak tal-

detik ondoko hausnarketa egin nahi genuke.

Irakurlea gal ez dadin, ordea, Euskal Mendi Federazioa zer den azalduko dugu lehen-dabizi: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko Lurralde Federazioak batzen dituen erakundea da. 1998ko udazkenean,

urtero bezala Nafarroako Federaziotik aurtengo aseguruak egiteko kanpaina abiatu zen. Bertako federatuen kezkei kasu eginez eta gero eta jende gehiago hemendik kanpoko federazioetara joaten zela ikusiz, aseguru merkeago bat bilatzen hasi zen. Horrela, Grupo Sabadell izeneko konpainia aukeratu zuten.

Erran behar da prezioak dextente merkeagoak zirela lortutako erreferentziak arras onak izanik (Catalunyako federazioarena adibidez). Nafarroako Federazioak Euskal Herrikoari proposamen hori jakinarazi zion.

EMFko batzordeak, ordea, gaizki ulertu zuen Nafarroaren jokabidea. Nafarroak bere baitetik konpainia berri bat bilatu izanaz ez zen ongi ikusia izan, leialtasun falta baten moduan hartuz. Gauzak horrela, giroa gero eta beroago zegoen, eta EMFko batzordeak Nafarroarekin harremanak hautsitzat eman zituen. Hau garbi gelditu zen Iruñean beraiekin

egindako bilera batean. Halere, hemen aipatutako jarra ez da orokorra eta EAEko zenbait talde eta lurraldeko federazioen elkartasuna jaso da.

Arestian azaldutako guziak bertze arazo sakon batzuk agertarazi ditu. Euskal Mendi Federazioaren gabezi latzak agerian gelditu dira. Erran behar da Nafarroaren asmoa (horrela izandu da beti) Euskal Herri osoko federazio sendo eta indarberritu bat eratzea dela, orain arte indarrean egon den konbenioak, ezer guttiko balio

Euskal Mendi Federazioaren gabezi latzak agerian gelditu dira. Erran behar da Nafarroaren asmoa (horrela izandu da beti) Euskal Herri osoko federazio sendo eta indarberritu bat eratzea dela...

izan duelako. Ikusten da momentu hau arras egokia izaten ahal dela helburu hori lortzeko.

Ez dugu akitu nahi, Euskal Herriko Federazioaren 75. urtemuga ospatzeko aurten antolatuko diren ekitaldien berri eman gabe. Horien artean, garrantzitsuenetakoa bat aipatuko dugu: "Mendiriz Mendi"; urtaril eta maiatza artean makila bat ibiliko da lekuko moduan Euskal Herriko mendi guzietan barna, eta zazpi herrialdeetako mendi taldeak izanen gara horren eramaleak. Ekintza hau egoera larri hau konpontzeko hasmenta izan dadila eta Mendiak berriz Euskal Herriko mendigoizale guziak elkartu gaitzala!

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Argia 98ko abenduak 13a

«Orotara 32 bat kolaboratzaile dauzkagu. Hauen tartean daude jubilatua, institutuko gazteak, euskara zerbitzuko teknikaria, apeza, sikologoak, udaletxeak, elkarteak...».

Eli BELAUNZARAN
Leitzako Karrape Irratikoa
Argia 98-XII-13

«Nafarroako iparraldeko botoen gehiengoa garbi-garbia lortu dugu, %71 hain juxtu ere. Boto kopuru horrek gardentasunez adierazten du EHNE dela mendialdeko baserriarren sindikatua».

Mikel PETRIRENA
EHNEko idazkari nagusia
Egunkaria 98-XII-30

◆ **Nafarroako Txapelketan ateriko zara aurten. Ze intentziorekin taularatuko zara?**

◆ Ahalik eta hobekien egitea.

◆ **Non kantatzen dituzu bertsoak gustorago?**

◆ Bertso eskolan, lasai, lasai.

◆ **Eta ze gairi buruz?**

◆ Aisa baldin bada, edozein. Gai zabalak nahiago ditut.

◆ **Taula gainean pasatu duzun momenturik txarrena?**

◆ Lehenbiziko aldian, bertso paper lehiaketan abestu nuenean.

◆ **Zer egiten duzu bertsoa botatzerakoan ez nerbiosteko?**

◆ Ez dago sekreturik. Berez urduria naiz, baina ari gara gaiztuz.

◆ **Bertsolari bat:**

◆ Momentu honetan, Irazu.

◆ **Zer egin beharko zenuke Lesakako finalera ailegatzeko?**

◆ Erreztu, erreztu ta erreztu.

◆ **Galdera tipiko bat. Bertsolari jaio edo egin egiten da?**

◆ Jaio zaletasunarekin jaiotzen ahal zara, baina gero landu egin behar da.

◆ **Txapelketarako pronostiko bat?**

◆ Ez dakit, nahiko irekia dago. Hor daude Estitxu Arozena, Xabier Silveira eta Manolo Arozena, baina igual Aranora ere joaten ahal da txapela...

◆ **Parrandetan bertsorik botatzen duzu?**

◆ Gutti. Batenbat igual bai, baina gutti.

◆ **Bota kopia bat ttipi-ttapa irakurleei:**

◆ Bi astero etxean dugu ttipi-ttapa pena merezi du ta segi leitzen aupa!



Julen ZELAIETA

BERA

Bertsolari eta panderojolea

**BAZTAN
FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
© 948 580373 • 908 776176



**ttipi-ttapa
internet**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**SEMPER
AUTO-ESKOLA**



Semper autoeskolak urte berri on bat opa dizue.
Kotxe gidatzeko karneta errax eta azkar lortzeko
maixu berrien zerbitzua eskaintzen dizue.

Anima zaitetze!

Eztegara Pasealekua, 18 • BERA • Tel.: 948 630 298



BAZTAN

**ALTZARIAK
zurgindegia**

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Hauexek dira TTIPI-TTAPA ZOZKETAKO zenbaki saridunak

Oparia eskuratzeko deitu
948 631188 telefonora

Bi helburu betetze-ko asmoarekin burutu da TTIPI-TTAPA ZOZKETA: ttipi-ttapako bazkide laguntzaileak saritzea, batetik, eta hauek eguneroko bizimoduan TTIPI TXARTELA erabiltzera ohituratzea, bertetik.

Jakina denez, zozketa honetan parte hartu duten dendari eta ostalariek erosketa kopuruaren arabera banatu ditu zozketako boletu-

ak, beti ere TTIPI TXARTELArekin erosten dutenen artean, noski. Saldutako zenbakien artean 55 opari zotz egin dugu eta ondoko koardroan ageri diren zenbakie egokitu zaizkie aipatu sariak.

Lerro hauen bidez, TTIPI-TTAPA ZOZKETAN parte hartu duten merkatariei eta ttipi-txartela erabiliz erosi dutenei eskerrak eman nahi dizkiogu.



DENDA	HERRIA	SARIA	ZENBAKIA
Agara Kirolak	BERA	Adidas Mendi Zapatilak	14227
Alustiza Lurrindenda	DONEZTEBE	Kolonia	13540
Amaiur Altzariak	DONEZTEBE	Xigorgailua	07329
Ayla Argazkidenda	BERA	Bi argazki makinak Funkodak	14412
Azalea Loredenda	BERA	Landare bat	06507
B. Almandoz Zapatadenda	ELIZONDO	Zapata parea	04275
Bidaxka Ostatua	BERA	2 plater konbinatu eta 2 trago	10293
Bittiria Harategia	LESAKA	2 Kg. Txorizo eta 2 Kg. txistor	04781
Blas Liburudenda	DONEZTEBE	3 liburu	02455
Deñe Lentzeria	LESAKA	Pijama bat	00822
Diaz Liburudenda	BERA	2 errotuladore sorta	05616
Dirdir Oparidenda	BERA	Pelutxe bat	12023
Edurne Haur Arropadenda	BERA	Pijama bat	00886
Elena Arropadenda	LESAKA	Ator bat	11324
Elena Jostailudenda	LESAKA	Futbol baloia	01560
Errekalde Ostatua	BERA	4 ogitarteko eta 4 trago	00965
Etxarte Erlojudenda	LESAKA	Casio Databank Erlojua	10933
Fagoaga Harategia	LESAKA	Urdaiazpiko bat	05642
Goiko Argazkindenda	BERA	Nikon EF300 argazkimakina	08505
Goizargi Jantzidenda	LESAKA	Eskuoihal sorta	03160
Goñi Zapatadenda	ELIZONDO	Zapatilla parea	14397
Igone Paperdenda	BERA	Liburu bat	04079
Inaxio Janaridenda	LESAKA	6 botil Cava	05594
Iparla Kirolak	ELIZONDO	Kirol zapatilak	06784
Izeta Erlojudenda	ELIZONDO	Erlojua	08653
Izoztuen Etxea	ELIZONDO	Tarta izoztua	13701
Jabier Elektrogailuak	ELIZONDO	Idazmahaiako lanpara	12621
Kalash Bitxidenda	BERA	Gizonezkoen erlojua	01834
Kalash Erlojudenda	DONEZTEBE	Emakumezkoen erlojua	09986
Kamamila Oparidenda	DONEZTEBE	Lanpara	02832
Koxkila Ostatua	LESAKA	Irudi apaingarriak	08028
Labekoak Goxotegia	DONEZTEBE	2 dozena kanutillo	12281
Lakanbra Motoak	DONEZTEBE	Kasko bat	11368
Legarra Liburudenda	LESAKA	Liburu bat	07029
Mareli Jantzidenda	ELIZONDO	Levi's galtzak	01037
M ^o Cruz Lentzeria	DONEZTEBE	Pijama bat	04356
Marixus Elektrogailuak	LESAKA	Musika Katea	02430
Martzutzak Oparidenda	BERA	Jertsea	13070
Martin Arraztoa Motoak	ELIZONDO	Bizikletarako neurgailua	10543
MerkaOpari Oparidenda	ELIZONDO	Portzelanazko panpina	09352
Miguel Jatetxea	IBARDIN	4 lagunendako afaria	08671
Nafarroa Artisaudenda	BERA	Egutegia	08832
Natura Etxea Belardenda	ELIZONDO	Natur Kosmetika Zentrua	11006
Oihana Jantzidenda	BERA	Barnejantzi sorta	13764
Ostargi Optika	BERA	Eguzki antiojuak	04325
Ostiz Zapatadenda	DONEZTEBE	Zapata parea	01688
Prieto Estankoa	BERA	Don Julian puro kaja	06901
Pui Ostatua	BERA	2 oilasko erre eta 2 trago	14410
Radio Bidasoa	BERA	2 xigorgailu	13166
Retegi Gozotegia	ELIZONDO	Kg. 1 txokolte eta Kg. 1 pasta	08003
Saski Berri Ostatua	LESAKA	2 kamiseta, 2 bokata, 2 trago	00902
Sobrino Kirolenda	ELIZONDO	Hondartzarako boltsa	04731
Txirrista Haur Jantzidenda	DONEZTEBE	Txandala	11279
Zizka Ostatua	BERA	2 kilo zigala	05718

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.
© 948630941•948631137•BERA

KULTUR ETXE AURRIAN
BERA

Xirgjel
ileapaindegia
© 948631462•Altzate I•BERA

Dia
Autozerbitzua deskontua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
E E K L E
st tu
Tfnoa: 948630259 - BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6
© 948631403•BERA

Kultur dinamizatzaile lanerako pertsona bat hartuko du Udalak

Hasiera batean INEMaren bidez kontratatuko da

ASIER GOGORTZA

Herrian egiten diren kultur ekitaldiak eta kulturaren inguruan mugitzen diren taldeak koordinatzeko pertsona bat hartuko du laster Herriko Etxeak. Kultur Batzordeak joan den urteko martxoan adierazi zuen herrian dinamizatzaile baten beharra zegoela, baina Udalbatzarretik pasa eta gero alde batera utzi zen afera hori. Orain, aldiz, legegaldia akautzeko gutti falta denean, Udalak dinamizatzailea lehenbait lehen hartu nahi du.

Denbora premia horren ondorioz, lanpostu honetarako deialdia INEMaren bidez egiten da, lehiaketa publikora ateratzea luze joaten baita normalean. Hala ere, ez da derrigorrezkoa izanen INEMen izena emana izatea. Lan horretarako unibertsitatean erdi mailako titulua izan behar da (diplomatua), eta oposaketa azterketa batean erabakiko da lanpostua nori eman. Azterketa horrek alde teorikoa (10 puntu) eta praktikoa (20 puntu) izanen ditu. Azterketa gainditzeko 15 puntu lortu behar dira.

Kultur dinamizatzailearen ardura izanen da herriko kultur talde-



Ongietorri eta omenaldi beroa Joxelu Etxeberriari

Zortzi urte terdi barranean eman ondotik gartzelatik ateri den Joxelu Etxeberriari ongietorri hunkigarria egin zitzaion joan den abenduaren 17an Beran. Abenduaren 19an, berriz, omenaldia egin zitzaion Altzateko frontoian. Bertzalde, lerro hauek idazterakoan, Sebas, bertze herriko preso bat, epailearen oporrak akautzeko esperoan zegoen, behingoz paperak egin eta kanpora ateratzeko. Josu Unson, berriz, urtarrilaren 27an ateriko da gartzelatik.

en arteko zubi lana egitea, eta baita Udaleko Kultur Batzordearen martxa eramatea ere.

KULTUR BATZORDEAREN ASMOAK

Bertzalde, Batzordearen azken bilkuran joan den urteko zenbait proposamen jarri ziren mahai gainean. Erraterako, 2 edo 3 hilabeteko maiztasunez biltzea, eta hiruhilabeteko triptiko batzuk argitaratzea, izatekoak diren kultur ekitaldien berri emanez.



Arrasateko Txapelketan garaile

Usa Zelaieta eta Leire Telletxeak lehendabiziko eta bigarren saria ekarri dute Arrasaten urtero egiten den Akordeoi Txapelketa Irekitik. Lehiaketa honetan maila arront oneko jendeak hartzen du parte, baina oraingoan lehen bi sariak Berarat etorri dira. Zorionak, beraz, bieri.

flash

Mikel Tabernak Tene Mujika saria irabazi du

37 ipuinen artean Mikel Tabernaren 'Bota xoxa' lana saritu dute epaileek. Maiatzerako ipuin saridunak argitaratuko omen dituzte.

Batzarra

Berako HBk egoera politikoari buruz solasteko bilkura idekia egiten du bihar, ortzeguna, Espidobaita elkartean, 8tan.

Berako historia

Herriko historiaren pasarte inportanteenak biltzen dituen 200 orriko liburua ateri du Bidasoa Ikerketa Zentroak.

Erremontean profesioalera

Gillermo Perugorria 21 urteko beratarrak errege egunean debutatu zuen erremontek profesioalaren artean. Aurrelari hau da Berako eskolak denbora tarte ttikian eman duen bigarren fruitua. Joan den urtean Joseba Iturralde izandu zen profesioalera salto egin zuena.



Gillermo PERUGORRIA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

➔ **LESAKA**

Bortzirietako Bertso Eskolaren txapelketa jokatzeko ari da

Finala urtarrilaren 22an izanen da Arrano elkartearen

AITOR AROZENA

Bortzirietako Bertso Eskolako hamabi bertsolari parte hartzen ari dira egunotan herrian antolatutako bertso txapelketan. Hamabikotea hiruna bertsolari lau taldetan banatuta da. Joan den ortziralean jokatu zen lehen kanporaketa Saski Zar ostatuan A taldea (Xabier Silveira, Juan Mari Lopez eta Julen Zelaia) eta B taldearen (Manolo Arozena, Xabier Terreros eta Alaitz Rekondo) artean. Ortziralean, urtarrilak 15, bigarren kanporaketa eginen da Kattu ostatuan, arratseko 10etatik aitzinera. D taldea (Estixu Arozena, Estixu Fernandez eta Erika Lagoma) eta E taldea (Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea eta Ekhine Etxepeleku) izanen dira aurrez aurre. Kanporaketa bakoitzean garaile suertatzen diren taldeak finala jokatuko duten datorren ortziralean, urtarrilak 22, Arrano elkartearen eginen den afalduan. Afaria arratseko 9etan hasiko da eta izen ematea Arranon egin behar da.

Txapelketa honekin ez dira akautuko, ordea, Bortzirietako Bertso Eskolako hilabete hone-



Ibarra eta Pernaute garaile paleta-goma txapelketan

Sunbillako Ibarrek eta Oronozko Pernautek irabazi dute Batzoki elkarteak Udalaren eta Rural Kutxaren laguntzaz antolatutako Lesakako bigarren paleta goma txapelketa. Abenduaren 19an jokaturako finalean 35-25 irabazi zieten Urdazubiko Larralde eta Zigako Lakostari. Hirugarren eta laugarren posturako norgehiagokan Igantziko Txoperena anaiek 35-18 irabazi zieten Ugalde-Zumeta gipuzkoarrei.

Argazkia: Aitor

tarako prestatuak dituen ekitaldiak. Urtarrilaren 29an, ortzirala, nolabaiteko bukaera besta egin nahi dute eta Arranon bertso-trama izanen da arratseko 9etatik aitzinera. Jon Maia eta berriki Bizkaia eta Arabako txapelketa irabazi duen Igor Elortza ariko dira Josu Goikoearen gidaritzapean. Bertso-trama zer den argitzea zaila denez, onena bertara agertzea izanen da, horretarako ere izena emanen da Arranon.

Jose Mari Arrigain tolosarra irabazle Beti Gazteren zortzigarren argazki lehiaketan

Jose Mari Arrigain tolosarrak aurkeztutako «Vapores» argazkiak irabazi du Beti Gazte elkarteak, Herriko Etxearen eta zenbait erakunderen laguntzaz zortzigarren urtez antolatutako argazki lehiaketaren sari nagusia, honenbertze 25.000 pezeta eta oroi-garria eskuratuz. Bigarren saria (15.000 pta) Bizkaiko Beran-

go herriko Javier Pedro Fernandezek erdietsi du, «Rossi III» izeneko erretratoarekin. Kirol argazki onenari emandako saria Aitor Ajuria zarautzarrak eskuratu zuen, bi txirridulari agertzen dituen argazki batengatik.

130 argazki inguru aurkeztu dira aurtengo lehiaketara eta antolatuzaileak pozik ageri dira, «argazki gehiago ez

ezik, ikusle gehiago ere izan baitira erakusketan».

Partehartzaile gehienak Euskal Herrikoak baziren ere, Bartzelonatik ere ailegatu da laren bat edo berteze.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiok ikusi nahi izanez gero abudu joan beharko duzue Beti Gaztera, igandea bitarte egonen baitira erakusketan.

▼ flash

❖ San Anton Eguna

ospatuko da igande honetan eta Endara auzoko baselizan eta inguruetan bisitari aunitz espero dira.

❖ Eguberrietako ospakizunak

Abenduaren 24ko jaiotza eta olentzero lehiaketak euripean ospatu baziren ere, neska-mutiko aunitzek parte hartu zuen. Errege bezperan, berri, eguraldiak lagundu zuen eta kabalgata ikusgarria egin zen. Urtezahar arratsean presoan aldeko konzentrazioa egin zen plazan.

❖ Futbol partidu berexia

jokatu zen Mastegin abenduaren 30ean: Euskadiko emakumeen selekzioa Beti Gazteko kadeteen kontra. Azkeneneko emaitza, 5 eta 4 lesakarren alde.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

Lurrindeuda
Marian Mendiberreri
Estetika
Behoko Plaza 8 © 948637791 • LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA
© 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

ANA janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637944
LESAKA

M. Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
Bittiria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

ETXALAR

Mediku-zerbitzuko orduak murriztuko ote dituzten

Iruñean aspaldixkotik horretan pentsatzen ari dira

PELLO APEZETXEA

Etxalarren medikuak eta erizainak egun osoko ordutegia dute, zazpi ordukoa.

Aintzina begira, hemen ordu gutiago sartuko dituztelako berria etorri zaigu, zazpi ordu izan beharrean hiru eta erdi edo lau. Gainerako orduak, zazpi arte, Beran beteko lituzkete. Hau noiz gertatuko den?

Horrenbertzeraino ez dakigu.

Nekazariendako bulego berria irekiko du Gobernuak

Bulego hori Lesakan astean hiru egunez, eta Beran astean bi egunez irekitzeko asmoa ager-

tu dute Nafarroako Gobernutik. Dena den, Udalarari zer iduritzen zaion jakinarazteko aukera eman diote, eta honak Etxalarren ere astean egun batez bederen ireki behar dela adieraztea erabaki du, Lesakara edo Berara joan beharrean. Izan ere, Etxalarren Beran hainbat nekazari, eta Lesakan baino aunitz gehiago dela kontutan hartuz gero, egokitzat jo behar da hemen bertan ere zerbitzu hori izatea.

Etxe berriak ugarituko dira

Hondarreko urteetan etxe berriak egin dira, baina hagitz gutika, tantaka-tantaka bezala. Momentu honetan lauz-



Pisu zaharraren azken hatsak

Noiz behinka bakarrik erabiltzen da argazkiko pisua, azienda pisatzeko aspaldiko tresna, herrikoetxe izanaren sarreran dagoena.

pabortz egiten ari dira, bizileku bakarrekoak denak, eta luze gabe bertze zortzi-hamar eraikitzen hasiko omen dira, bina bizilekukoak azkeneko hauek.

Larraburuko mus eta partxisa

Larraburuko mus txapelketak eta partxis txapelketak urte berriaren lehen igandean izan zuen akabila. Lehenbiziko lau bikoteen artean sari banatzea, Errege

Egunean egin zen. Eta urtarrilaren 16an, larunbata, izanen da joan parte hartu duten guzuen afaria. Ezin ukatu txapelketaren errekista, igandehorietan Larraburuko biltokia be- tea egon baita.

Eguberrialdiko ospakizun eta bestak

Ongi joan dira Egu- berrietako ospakizunak. Eguraldi ona lagun zela, Olentzerorekin itzu-

lia jendetsua izan zen Gabonetan. Urtezahar goizeko 'Ela,ela'ra ez zuten huts egin haurrek. Ilunduta, presoak hurbiltzearen oroitzapena ere berritu zen udal- txearen aintzineko kontzentrazioarekin. Urte- zaharrari adio erraiteko afaria, berriz, gehienek herrian bertan egin zu- ten, nahiz eta gero hor barrena joan, noski. Ateraldi horietarako ere denbora onak lagundu zuen.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
© 948635290 **ETXALAR**

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

HARITZPE
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

LEGARRA
Legarra, 9 • © 948 637 030 • **LESAKA**
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hobena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 • © 948637264

IGANTZI

Eguraldi zoragarriarekin joan zaizkigu Eguberriak

Ebasketa saiakera egin dute berriz ere Igantziko Biltokin

OSKAR TXOPERENA

Biltoki Elkartean ebastera sartu dira

Bi arrazoi hagitz desberdinengatik dakarkigu Biltokiren aipamena oraingo gure ale honetara: Txarretik hasteagatik, Errege egun arratsean izandako ebasketa saiakera aipatuko dugu. Ez da gertatzen den lehendabiziko aldia, aunitz baitira dagoeneko bertan egin diren ebasketak. Oraingoan, tresnak ondoko obra bate-tatik hartu, piszina inguruko hesia moztu -ez zuten nonbait bertze biderik ezagutzen- eta atea bortxatu ondotik bertako kutxa irekitzen saiatu ziren. Ez zuten lortu, baina kaltetu bai, nonbait.

Bertzalde, partxis eta mus txapelketa ere hastera doazi Biltokin. Heldu den larunbatean



Eguberrietako protagonistak

Hauexek izan dira, azkeneko urtetan bezalaxe, Igantzi eta inguruko herri aunitzetako Eguberrietako protagonistak: Olentzero eta Erregeak. Eguraldiak lagunduta, hagitz giro polita paratu dute herrian ospakizun guziak.

hasiko da musekoa 9 bikoterekin, eta 24ean partxisekoa 5 bikoterekin. Urteko batzar orokorra otsailaren 20an izanen denez, erdifinal eta fi-

nalak otsailaren 27an jokatu dira. Egia erran, izan ditu urte ho-beak txapelketa honek, bikote kopuruaren aldetik behinpein.

Udalbatzaren erabakia

Azkeneko bilkuran, bertze gai aunitzen artean eta EAJren zinegotzien kontrako boto-

ekin, herrian eginen diren obrak ordainduko dituzten tasak onartu ziren.

Hemendik aintzineraren egiten diren obra guziak, tikiak zein haundiak, ordaindu beharko dituzte aipatutako tasak. Orain arte teila berritu, etxeak pintatu eta horrelako lanak ez zuten tasarik ordaintzen eta, erran bezala, hemendik aintzineraren aurrekontuaren arabera beti ere, egin beharko dute.

Bilkura presoan alde

Urte zahar arratsaldean hogeita hamar lagun inguru bildu ziren herriko plazan presoan eskubideak aldarrikatzeko, Euskal Herri osorako egindako deialdiaren barrenean. Igantzin egin den lehendabiziko enkartelada izan zen.

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERBIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
© 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

XATURBETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

KOXKILA
OSTATUA
Zarandía, 4 - **LESAKA**

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • **LESAKA**
Tfnoa: 948450475 • **DONEZTEBE**

LESAKA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera
© 948630735

ARANTZA

Giro ederrean eta ekitaldiz beteak igaro dira Eguberriak

Olentzeroa, Santakta, presoen aldeko konzentrazioa, mendi mutilen besta...

ELIXABET ETA GARBIÑE

Urtero bezala, aurten ere Olentzero eguna abenduaren 24an ospatu zen. Denetara, eskalo haurrek eta Gazte Asanbladakoek egindako sei edo zazpi olentzero ibili ziren herrian. Aipatu behar da gazteen olentzeroa biziduna zela eta preso zegoela, gainera. Biharamonean, Eguberri egunean olentzero guziak sutan erre zituzten, biziduna ezik. Hau askatu egin zuten eta bere espetxea erre zuten.

Santakta eskean ibili ziren gazteak

Bertzalde, aurten ere ibili dira gazteak Santaktan. Eguberri gauean ibili ziren auzoz auzo eta hilteltzaren 3an herriko itzulia egin zuten. Bi gauean egindako eguraldi zoragarria



Gazteek nahiz eskolako neska-mutikoek egindako olentzeroak karrikaz karrika eta auzoz auzo ibili ziren

Artxibokoa

aprobetxatuz, giro ederra jarri zuten ailegatu ziren txoko guzietan.

Presoen aldeko onzentrazioa

Dena ez zen besta izan egun hauetan eta urtearen hondarko egu-

nean eta deialdi nazionalari segituz, kontzentrazio bat burutu zen plazan euskal presoak Euskal Herrira ekar dituzaten. Bertan, alkatea eta zinegotzietz gain, berrogeita bortz lagun bildu ziren.

Skia eta erregeak

Urteari hasiera ona eman ondoren, Gazte Asanbladak ski bidaiara antolatuta zeukan eta urtearen lehen asteburua Luz Ardidenen pasatu zuten hogeita hamalau gaztek. Larunbata men-

dian pasatu ondoren, aterpe batean igaro zuten gaua eta igandean berriro eskiatzen ibili ziren. Ederki pasa omen zuten eta denak sano-sano itzuli ziren etxera igande gauez.

Erregeak ere etorri ziren herrira urtarrilaren 5ean. Erregalo aunitz ekarri zituzten, Arantzako haurretaz eta ez hain haurretaz oroitutirela erakutsiz.

Mendi mutilen besta

Biharamonean, ohitura bihurtu den Mendi Mutilen bazkaria egin zen Aterpen. Aitzinetik, pilotaplazan aizkora apostua jokatu zen Donato Larretxea eta Mikel Mindegiaren artean. Gero, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok bertsoz alaitu zuten jendez gainezka zegoen Aterpeko bazkaria eta bazkalondoa.

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
 Lagunekin elkartzeko toki egokia
 Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu!
 Gu arduratuko gara horretaz.
 Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
 © 948630155
BERA

DISFRACES LA MASCARA

- ✂ Inauterietako mozerroetan den-dena daukagu
- ✂ Era guzietako mozerro eta osagarrien alekairua eta salmenta
- ✂ Festen prestakuntza
- ✂ Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras, 6 • Tel. eta faxa: 948 250 004 • **3 1007 IRUÑEA**

SUNBILLA

Olentzero egunean eta Errege bezperan ederki goxatu zuten haurrek

Hilbeltzaren azken asteburuan ospatuko diren iñauterietako egitaraua prest

JAIONE ETA ALBA

Eguberrietan hau-
rendako bereziak izaten diren bi egunak, abenduaren 24a eta urtarrilaren 5a, primeran joan ziren. Erran behar da Olentzeroren ibilaldia bertze urteetan baino lehenago akitu zela, ibilbide aldaketa zela eta. Bildutako diruarekin Errege Kabalgataz gain, bertze hainbat kontu antolatuko dira urte berri honetan. Erregeak ere pasatu ziren Sunbillatik urtarrilaren 5ean eta opariak banatu zizkieten muxu ematera hurbildu zirenei. Bertze aldetik, egun berean Antzakaitz kultur taldeak plaka oroigarri bat oparitu zion Ulibeltzak elkarteko Zuzendaritza Batzordeari, beraien borondatea eskertuz.

Eguberri Egunean, ohitura den bezala, gaz-



Olentzeroaren ibilbidea bertze urteetan baino lehenago akitu da aurten, ibilbide aldaketa dela eta

Artxibokoa

teak eskean ibili ziren herrian. Bildutako diruarekin bazkari ederra antolatu zuten Bustitz ostatuan. Bazkalondoan, Mikel Salaberrik alaitu zuen giroa bere musikarekin.

Urtexahar gauean afaria antolatu zen

Ulibeltzak elkartean eta berrogei bat lagunek afaldu zuten. Mahatsak an ondoren, Modesto akordeolariak dantzan jarri zituen elkartera hurbildu ziren guziak.

Iñauteriak

Dagoeneko prest da-

go hilbeltzaren azken asteburuan ospatuko diren iñauterietako egitaraua. Ortziralean, hilbeltzak 29, herriko gazteak Itturburu ostatuan gosalduko dute eskean hasi aitzinetik. Bazkaria baserrietan egingen dute. Arratsaldeko 5etan

txokoltea banatuko da Ulibeltzak elkartean. Arratseko 8,30etatik 10,30etara arkupetan musika izanen da. Gazteek Bustitz ostatuan afalduko dute eta Ulibeltzak elkartean emakumeen afaria izanen da. Mikel Salaberriak alaituko du gau giroa.

Larunbatean Iruri-bieta ostatuan gosalduko dute gazteek, bazkaria Fonda ostatuan eta afaria HerrikoEtxean. Arratsean musika izanen da arkupetan eta Fondan kontzertua Leaitz trikitixa taldearekin.

Igandean Bustitz ostatuan gosaria egingen dute gazteek. Karrozen desfilea 11,30etan hasiko da. Ondoren, herri bazkaria Ulibeltzak elkartean. Arratsaldean musika izanen da Ulibeltzak elkartean Korkor txarangarekin.

BEINTZAKO OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ETXANDI TXOKO

jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • © 948 450 491

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

MARTIKO

Gure baserrietako produktuak

© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

MALERREKA

Askin mendian antena paratzeko baimena eman dio Udalak TTIPI-TTAPA TELEBISTARI

Martxorako ikusi ahal izanen da Bertizaranan eta Malerrekako herri gehienetan

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Udalak ahobatez onartu du TTIPI-TTAPA TELEBISTA Malerreka eta Bertizaranan ikusteko udalarenak diren azpiegiturak erabiltzeko baimena ematea.

Horren ondorioz, TTIPI-TTAPA laster errepeditorea paratuko du Doneztebeko Askin mendian, eta martxorako, TTIPI-TTAPA TELEBISTA ikusi ahal izanen da Bertizaranan eta Malerrekako herri gehientsuenetan.

Zein kanaletan ikusiko den oraindik arraz zehaztu gabe dago. Jakin bezain abudo emanen da horren berri.

LEHEN ETBREN SEINALEA, ORAIN...

Azpiegitura horiek (etxola, argindarra, burnezko torrea...) duela 15 urte inguru egin zituen Doneztebeko udalak ETBren seinalea Doneztebe aldean zabaltzeko. Orain berriki, antena hortatik ikusi dira telebista gehienak, jogan den neguan haizeak



Aurtizko eskuz banakako pilota txapelketa igandean hasiko da

Aurtizko eskuz banakako bigarren pilota txapelketa jokatu da igande honetatik aitzinera. Hogeita bost pilotarik eman dute izena eta lau taldetan banatu dira. Lehendabizikoan Ordoki, Ugalde, Zipri, Patziku, Mindegia eta Babaze ariko dira. Bigarrenak zazpi pilotari izanen ditu: Otxoteko, Joseba Mariñelarena, Bautista, Cerezo, Urrutia, Raul eta Zubieta. Hirugarrenean Matxitene, Iñaki Mariñelarena, Bordaxuri, Juan Mari Apeztegia, Rekarte eta Asier Apeztegia eta laugarrenean Retegi, Tomas, Irigoien, Kastro, Mujika eta Manueltzo ariko dira.

bota zuen Retevisión-eko antena berria egin duten bitartean. Gaur egun Xaloa Telebistaren errepeditorea dago hor.

SUNBILLAN IKUSTEN DA 21. KANALEAN

TTIPI-TTAPA TB Sunbillan eta Doneztebeko toki batzutan ikusten da

aspaldixkotik, 21. kanalean. Sunbillako inauteriak TTIPI-TTAPAN ikusi nahi dituenak, badauki non begiratu.

ITUREN

IBAN ISASI

Bi zarien zozketa

Ibintza Kultur taldeak zariaren zozketa egin zuen Errege bezperan. Bi zari banatu dira. 1. zaria: 2887 (Periko Mindegiari egokitu zitzaion). 2.saria (bi afari Altxunean): 2.571 zenbakiari egokitu zitzaion eta oraindik ez da agertu sari-duna.

Errege bezpera

Urtero-urtero, ohitura den bezala, Errege bezperan 65 lagun elkartu ziren Herriko Ostatuan afaltzeko. Ondotik dantzaldia izan zen Mikel Salaberri akordeolariarekin. Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunak joarea jotzen ibili ziren berandu arte.

Senideak

Iturengo Udalak, Senideak erakundeak aurkeztutako mozioa onartu zuen ahobatez azken batzarrean.

Iberraketa Martzurria
Martzurria arrapa
 0-14 urte
 Parroquia 11 - Doneztebe
 2008-2009

Urtarrilean denboraldiko arrapa erdi prezioan

Katzenak
 LENTZERIA

Parroquia 11
 Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
 948 451 541
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

BERTIZARANA-MALEERREKA



Esther janaridenda zabalik Narbarten

Abenduaren 20an zabaldu zen Narbarten Esther janaridenda, Landa Lurraldeko Komertzioaren sarearen bareneari zerbitzua eskaintzen duen lehena, hain xuxen. Esther Arretxea da dendako nagusia. «Narbarte dendarik gabe gelditzea penagarria iruditzen zitzaidan» dio.

flash

Traktoreen Azterketa Teknikoa (ITV)

Urtarrilaren 20an Narbarten egonen da traktoreen azterketa pasatzeko tailerra; Urtarrilaren 25ean Iturenen; 26an Urrotzen; 27an Beintza-Labaienen; 28an Saldiasen eta urtarrilaren 29an Ezkurran.

Beintza-Labaiengo saneamendu lanak

Beintza-Labaiengo ur-hornidura, saneamendu eta zolaberitze lanak egiteko proposamenak hiltzaren 20ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan. **Aurrekontua** 130.704.696 pezetakoa izan behar da gehienez (BEZ barne)

Legasako fabrikaren

teilatuko zati bat airatu zuen haizeak abenduaren 29an. Langileek ez zuten minik hartu baina zenbait auto kolpatu zituen uralitak.

Bertizko Natur Parkea ez ukitzea gomendatu du ikerketa batek

Halere, zenbait pago mozteko asmoa du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Zaragozako EGA enpresak, Nafarroako Gobernuaren aginduz egindako ikerketa batek Bertizko Natur parkeko zuhaitziak bere hortan uztea gomendatzen du. Halere, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak ez dio batere kasurik egin ikerketaren ondorioei eta hainbat aditu eta natura zaintzeko taldeek egindako eskariei eta dagoeneko Bertizen esku hartzeko lehendabiziko neurriak hartu ditu. Nafarroako Gobernuak bere garaian onartutako Oihangintza Planarekin aitzinera egiteko asmoa azaldu du publikoki. Plan honen arabera, Bertizko zenbait eremutan hamar zuhaitzetatik bat mozteko da. Ingurugiro Departamentuaren usitez, adinaren arabera

oreka guti dauka Bertizko basoak eta pagoak haritzei gailentzeko arriskua dago. Yolanda Barcina kontseilariaren erranetan, «baso mixtoa, pagadi hutsean bihurtzeko eta haritzen inguruan bizi ohi diren animaliak desagertarazteko arriskua dago».

Ikerketa egin duen taldeak, aldiz, desoreka ez dela hain nabarmena uste du eta neurketan izandako gorabeherekin ere lotua egoten ahal da.

Baina kritika guzietan aurre eginez, Nafarroako Gobernuak bereari eutsiko dio. Horren erakusgarri, iazko abenduaren 21ean Iharduera Plana onartu eta Madrilgo Unibertsidade Politeknikoarekin konmenioa sinatu zuela Nafarroako Gobernuak, ia 15 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Zaldua argazki dendak zozketatutako mendi bizikleta Legasara

Zaldua argazki dendak zozketatutako mendi bizikleta Legasako Sonia Andresenari egokitu zitzaion. Zorionak.

Argazkia: Zaldua



EGONALDIAK BAINU-ETXEETAN

Non	Noiz	Iraupena	Prezioa	Lekuak	Non	Noiz	Iraupena	Prezioa	Lekuak
Arnedillo	Apirilaren 20tik 29ra	10 egun	33.500	50	Fitero	Urriaren 26tik azaroaren 6ra	12 egun	40.000	130
Arnedillo	Maiatzaren 5etik 14ra	10 egun	33.500	50	Fitero	Urriaren 27tik azaroaren 7ra	12 egun	40.000	120
Arnedillo	Urriaren 25etik azaroaren 3ra	10 egun	33.500	50	Fitero	Azaroaren 5etik 16ra	12 egun	40.000	120
Zestoa	Apirilaren 6tik 15era	10 egun	40.000	110	Fitero	Azaroaren 7tik 18ra	12 egun	40.000	80
Fitero	Martxoaren 19tik 30era	12 egun	40.000	145	Fitero	Azaroaren 8tik 19ra	12 egun	40.000	120
Fitero	Martxoaren 20tik 31ra	12 egun	40.000	145	Fitero	Azaroaren 18tik 29ra	12 egun	40.000	50
Fitero	Apirilaren 6tik 17ra	12 egun	40.000	120	Fitero	Azaroaren 19tik 30era	12 egun	40.000	80
Fitero	Apirilaren 12tik 23ra	12 egun	40.000	140	Seron	Uztailaren 22tik 31ra	10 egun	34.000	104
Fitero	Apirilaren 18tik 29ra	12 egun	40.000	120	Seron	Abuztuaren 23tik irailaren 1era	10 egun	34.000	104

Bainu-etxeen programan parte hartzeko aukera luzatu dute Gizarte Zerbitzuek

Urtero bezalatsu, eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Bainu Etxeen programan parte hartzeko aukera zabaldu dute. Programa honek sendabide egokia eskaintzen du gaitza desberdinak tratatzeko, bertzeak bertze arnasteko zailtasunak, hezurretako minak, giltzurrintako ajeak...

Eskaintza 65 urtetik goitikoentzat; erretiroko pentsioa edo ezintasun osoa dutenentzat; alargun pentsiodunenentzat, 60 urte beteak izanik eta senar-emazte edo horrelako lotura dutenentzat zuzenduak daude bainu-etxeko egonaldi hauek. Zenbait baldintza bete behar dira programan sartzeko: beinu etxeetako bizimodu normala aztoratzeko moduko buru-nahaste larririk ez izatea, eritasun kutsagaririk ez izatea, norbera bere kabuz baliatzeko gauza izatea eta tratamendu termala behar izatea.

Izena urtarrilaren 26a baino lehen eman behar da eta horretarako gizarte laguntzailearekin (asistentia soziala) mintzatu behar da. Goiko koadroan ageri dira zein bainu-etxetan eta noiz izanen diren egonaldiak.



FI Z ITEZ GU EKIN

. .C. GU E
L N-E EMU

Uztailaren 22tik 31ra, abuztuaren 23tik irailaren 1era, urriaren 26tik azaroaren 6ra, urriaren 27tik azaroaren 7ra, azaroaren 5etik 16ra, azaroaren 7tik 18ra, azaroaren 8tik 19ra, azaroaren 18tik 29ra, azaroaren 19tik 30era, abuztuaren 23tik irailaren 1era

U KEZTEK E E UT IL EN TI KM TX EN I2



RUR LKUTXA

GOIZUETA



Iruñeko kartzelaurrean egindako konzentrazioa

Argazkia: Esteban



Txapeldunak Burlatan

Jon Narbarte eta Jon Apezetxeak irabazi berria dute pilota munduan hain ezaguna den Burlatako Torneoa. Aditu askok diotenez hamarna urteko bi mutikoak ingurumari hauetako bi benjaminik hoberenak dira.

Eguberrietan ere etxe zuloatik kanpora

Erantzun ikaragarria eman zieten herritarrek egun horietako deialdiei

ESTEBAN AROZENA

Euskarari eta euskal presoen eskubideei baiezeko borobila eman diete herritarrek berriz ere, harrigarria izan baita Eguberrien barrene-

an antolatutako hiru deialdik jasotzen erantzuna.

Abenduaren 26an Iruñeko Sadarreko harrimailak bete zituzten milaka lagun artean Goizuetatik lau auto-

busetan joandako 160 euskaltzale zeuden. Abenduaren 31n eta hilbeltzaren 3an, aldiz, bi konzentrazio burutu ziren; bat herriko plazan euskal presoek Euskal Herriratzea eskatuz, eta

bestea Iruñeko kartzelaurrean Juan Migel Apezetxeak aspaldian etxean egoteko duen eskubidea aldarrikatuz (ezkerreko argazkian). Bietan jende multzo handia bildu zen.

Hitz Egin plataformaren esker ona

Hilbeltzaren 30ean kaleratuko den Gara egunkariaren alde ia lau milioi pezeta bildu dira herrian, prebisio guztiak gaindituz. Horretatik, Goizuetako Hitz

egin plataformak lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkie diruz lagundu duten erakunde eta herritar guziei.

Nolako fiestak nahi dituzu?

Herriko fiestataz iriztiren bat eman nahi duenak larunbat honetan, urtarrilak 16, aukera ezin hobea izanen du, propio horretarako bilera bat eginen baita Umore Onan arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

ARESO

Eguberrietako oporrak bizi-bizirik izan dira

Sokatira taldea bikain ari da

JUANA M^a SAIZAR

Eguberrietako oporrak bizi-bizirik izan dira. Eskolan umeei antzerkia eskaini zuten. Gero, olentzeroren bixita eta bukatzeko txistorjatea. Hau dena abenduaren 22an ospatu zen

eta egun berean Leitzañan egokitutako *gordoak* herritar batzuk zipriztindu ditu.

Bai Euskarari kanpainaren barnean autobusa joan zen Sadarrean.

Guraso Elkarteak antolatutako bidaiari, Bilboko Jolas Parkean

gozatu ederra hartu zuten haurrek aurten ere.

Bi bideo emanaldi izan dira eskolako soinketa-gelan: *Titanic* eta *40 ordu*.

Goiz batean, begiraleak prestatutako jokuekin ederki aritu ziren umek.



Olentzeroren bixitaren ondotik txistor jatea izan zen eskolan

Senideak erakunde-ari elkartasuna adierazi zion ahobatez udalak eta konzentrazio isila egin zen Urtezahar

gauean.

Aurten ere Erregeak etxe etxe beraien zaldi eta pajeekin ibili dira.

LEITZA

Eguberrietako Loteriak milaka milioi utzi ditu herrian

Urkiola harategian saldu zen *Gordoa*

JOSEBA AZPIROZ

Eguberriak egun zoriontsuak izaten omen dira eta aurten, bederen, halaxe izan da hainbat eta hainbat leitzarrentzat. Izan ere, abenduaren 22ko Eguberrietako Loteriak diru parrastada ederra -5.040 milioi pezeta- ekarri baitzuen herrira.

Sari nagusia 21.856 zenbakiari egokitu zitzaion eta Urkiola ha-



rategian zenbaki honen hainbat partizipazio saldu ziren. Berria jakin bezain laster, Amazabal auzora hainbat lagun,

ezagun eta ka bildu zen. Herriko beraien atzeteko diru ederra izanen



Leitza bazarreko 5.040 milioiak, Urkiola harategian saldu ziren.

flash

❖ **Guardiazibilari salaketa**

Udaleko eta Herri Ekimeneko ordezkariak guardia zibilen erasoan aurkako salaketa publikoa egin zuten abenduaren 23an. Salaketa judziala egin aurretik guardia zibilak herritik joateko eskatu zuten. Urrian onartutako mozioaren arabera, salaketa Nafarroako Parlamentuan ere aurkeztu zuten. Udalaren ordezkariak Espainiako Gobernuko ordezkaria den Ansua-tegirekin biltzeko eskaera egin dute.

❖ **Emakumeen Garapenerako ikastaroak**

bideratzen saiatuko da Udala, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Ikastaroen dirulaguntzak lortzeko deialdia zabaldu den bezain, ikastaroren bat antolatu nahi duenak, hilbeltzaren 15a baino lehen honen memoria aurkeztu beharko du Udal Idazkaritzan. Memorian, ikastaroaren iraupena, orduak, aurrekontua eta zenbait xehetasun agertuko dira.

❖ **Zinema lanean**

Berrikuntza lanak bukatuak izanen direlakoan, ostiral honetatik, hilbeltzak 15, aurrera zinemaren emanaldiekin jarraitzea aurrakusi da.


Errege Kabalgata

Jende asko bildu zen erregeen etorrera ikustera, eguraldi epela lagun.



Euskal presoak Euskal Herrira manifestazioa

Senideen eskaeraren ondorioz, Euskal Presoak Euskal Herrira orain! lemapean Udalak deituriko manifestazioa burutu zen abenduaren 31n. EA eta HBko zinegotziek eraman zuten pankarta eta herritar askok parte hartu zuten euskal preso politikoaren eskubideen aldeko manifestazioa ixilean. Hilbeltzaren 19an, berriz, espetxean egondako bi lagun eta preso baten gurasoak presoenguruko problematikaz mintzatu ziren Aurrera elkartearen. Saioa Herri Ekimenak antolatu zuen eta emaitzak kontuan hartuta, beste herrietan ere horrelakoak egitera animatzen zaituzte.



Manuel Lasarteko iturria

Urte askoz obretako materialaz zakartuta egon den Manuel Lasarte auzoko txoko hau erosi ondoren, garbitu, txukundu eta iturri hau egin arazi du Udalak.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

BAZTAN

Elizondo alkaterik gabe

Gainerako hamalauak eta lau kuarteletako junteroak aukeratuak

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 20an Baztango 13 herrietako alkateak aukeratu ziren. Hauetatik zazpi alkate berriak izanen dira eta bertze seiak beraien karguan segituko dute bertze bi urtez. Elizondon eta Zigan, ordea, ez zen hautagaririk aurkeztu eta alkaterik gabe gelditu ziren lehen saio horretan. Urteberri egunean, Zigak lortu zuen bere alkatea (Francisco Etxenike), baina Elizondok ez -ezta Errege eguneko batzarraren ere-. Ordenantzak dioenaren arabera, Balleko alkateak batzarrare berri bat deitu beharko du hilabete baten barranean.

«HERRI TTAILOTAN ALKATEAK EZIN DU GAUZA AUNITZ EGIN»

Hori da alkate gehienen arrenkura: «Asmo aunitz bai, baina diru guti». Beraien ustez, alkate izanda eginbehar aunitz daude, baina dirua eta baliabideak, arras guti.

Alkateak ez ezik, Eguberri eguneko batzarraren Baztango lau kuarteletako juntakideak aukeratu ziren. Azpilkuetako Jose Manuel Mariezkurrenak Baztangoizan eta Almandozko Rafael Agerrek Basaburuan beraien karguan segituko dute bertze lau urtez. Lekarozko Pedro Mari Oskariz Elizondoko kuartelean eta Oronozko Pedro Berrok Herberkoan, lehen aldiz beteko dute kargua.

Almandoz



Xeberino Landa
Lanerako ez gaitua
59 urte (3.urtea)

- Ura sartzen ari gara Auiamenditik eta depositoa ere egin behar da. Herriko argien afera ere moldatu nahi dugu.

Amaiur



Bernardo Amiano
Aceraliako langilea
46 urte (5.urtea)

- Kanposantu zaharrean aparkalekua egin.
- Pilarikaren ermita konpondu.
- Kanposantu berrian moldaketak egin.

Aniz



Marcelino Rementegi
Aurrejubilatua
56 urte (3.urtea)*

- Herritarrok erabakiko ditugu lehentasunak Errege Eguneko batzarraren eta horren arabera eginen dira lanak.
- * Orain 8 urte alkate izan zen

Arizkun



M^a Victoria Goñi
Adinekoak zaindu
53 urte (1.urtea)

- Frontona konpondu, zola arras gaizki baitu.
- Iturri-xar iturriari aurpegia garbitu.
- Gazteekin solas egin, lanean hasteko.

Arraioz



Juan Bautista Oteiza
Su-hiltzailea
44 urte (1.urtea)

- Baserrietako bideak moldatu, Urrutia auzoko zola berri, mar-kesina egin eta frontonari ura sartzen zaionez, hori moldatu.


Azpilkueta



Fermin Barazabal
Aceraliako langilea
50 urte (5.urtea)

- «Asmo aunitz eta diru guti».
- Apaioa auzoko San Fco ermita moldatu.
- Kanposantu inguruan harria bota.

Berroeta



Lorenzo Maritorea
Baserriko lanak
34 urte (1.urtea)

- Oraindik ez du ja pentsatu

Elbetea



Patxi Ameztioi
Aceraliako langilea
44 urte (1. urtea)

- Urtarrilaren 7an deitu (argazkia bidaliko du Zalaingo norbaitekin).

Erratzu



Santiago Ibarra
Aceraliako langilea
42 urte (1.urtea)

- Lehenik ikusi aitzinetik zer den eskatua Udalean.
- Herriaren laguntza nahitaezkoa, beraz, auzolana bultzatu.

Gartzain



Patxi Peña
Su-hiltzailea
36 urte (1. urtea)

- Asmoak aunitz ditugu, baina lehentasunak ezarri behar dira eta horretarako jendearekin solas egin. Aitzinago ikusiko dugu...

Iurrita



Maribel San Jose
Etxekoandrea
50 urte (4. urtea)

- Medikuko kontsultarako lur-eremua badugu eta horrekin segitu. Karriken moldaketa akitu eta kanposantuko urbanizazioa.

Lekaroz



Miguel Angel Aldea
Aceralian ebentuala
40 urte (1. urtea)

- Zenbait baserrietako bideak arras gaizki daude eta horiek moldatu eta herrian ere pareta batzuk moldatu behar dira.

Oronoz



Florentino Goñi
Aceraliako langilea
46 urte (7.urtea)

- Nere kezka haundiena errepide berria ur-tuberriaren gainetik pasatzen dela da. Gero pilotalekua eta etxebizitza sozialak.

Ziga



Francisco Etxenike
Aceraliako langilea
42 urte (1.urtea)

- «Gauzak heldu diren bezala moldatu beharko ditugu, baina pistak konpondu eta honelakoak egin beharko ditugu».

BAZTAN OPTIKA
ORDUTEGI BERRIA:
Egunero
goizeko 9,30etatik 1,30etara eta
arratsaldetan, 4,45etatik 7,45etara
Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

Konponketak akitu bitartean Ornozko eskola itxirik egonen da

Monjen eskola zenan, berriz, etxebizitzak eginen dira

RAMON APEZETXEA

San Martin eskola-ko pilotalekua itxi egin da, burutzen ari diren konponketa lanak akitu bitartean. Behar bezala moldatu arte ez da sartu behar, arriskua da-goelakoz.

Bertzalde, hau irakurtzerakoan egin ez bada, herriko eskola laster inauguratuko da. Halere, eguberrietako oporren ondotik hasiak dira haurrak eskola eder hortan. Olentzerok opari ederra ekarri die herriko haurrei.

MONJEN ESKOLAN ETXEBIZITZAK

Duela zenbait urte arte Batxilergoa eman zen eskola, Monjen eskola alegia, galdu da. Bertan apartamenduak, bizilekuak, etabar... eginen dira. Halere, oraindik ez dago jakiterik noiz hasiko diren lanak eta zenbat etxebizitza eginen diren, ezta laguntza ofizialekoak izanen ote diren edo ez.

Eguberrietako ospakizunak Basaburuan

Urtero bezala, aurten ere ohitura onari segituz, Almandoz, Berroeta eta Anizko haurrek Eguberrietako ekintzak karrikaratu dituzte.

Hiru herriotan, eta eguberrietako sarrera bezala, karrikaz karrika ibili ziren Olentzeroa bizkarrean zutela. Almandozko haurrek beren afaria egin zuten,



San Francisco Javier ikastetxeak Valencian

Elizondoko San Francisco Javier eskola publikoko seigarren mailako ikasleek "eskola ibiltarietan" aste bat (azaroaren 17tik 23ra) Valencia inguruan giro ederrean eman dute.



Baztan Ikastolaren Krosa "Bai Euskarari" kanpainaren alde

Abenduaren 13an burutu zen Baztan Ikastolak Balleko Udalaren laguntzaz antolatutako Eguberrietako Krosa. Urtero bezala, korrikalari gazte-oxoenek aukera izan dute, maila desberdinetan parte hartzeko. Aurten, kirol ekitaldi hau, "Bai Euskarari" kanpainaren barnean ospatu da.

urtero bezala, egun horretan bildutako diruarekin.

Urte berri egunean, berriro karrikaz karrika

abestuz eta herriari urte berria opatuz ibili ziren. Sagarrak, laranjak, giltzaurrak... hartu zituzten saritzat.

Errege bezperan, azkenik, joareak joz ibili ziren. Honela ospatu eta mantentzen dira gure herriotako ohiturak.

flash

Senideak-en mozia onartua

Euskal presoen eskubideen alde Senideak erakundeak aruztutako mozia onartu zuen Balleko Udalak, EA eta HB-ren aldeko bozekin. UPN eta ABko ordezkariekin ez zuten boturik eman, euren ustez Udala ez baita afera hau moldatzeko lekurik onena.

Traktoreen Azterketa Teknikoa (ITV)

Urtarrilaren 12an Orabidean eta 13an Gartzainen egon ondotik, urtarrilaren 14an Arraiozen izanen datraktoreen azterketa pasatzeko tailerra. Hortik Basaburua aldera ganen da: 15ean (ortzilerie) Zigara, 18an (astelehena) Berroetara eta 19an Almandozera.

Xorroxin Irratiak helbide berria

Zortzi urtez Iruritan izan ondotik, Elizondoko Abiazioaren Etorbidean kokatu du bere egoitza Xorroxin Irratiak (San Francisco Javier ikastetxean). Balleko Udalak utzi dio lokala.

Mendiko lanak

Azken urteotan mendiko lanak egiten dituzten lau baztandarraren lanpostuak finkoak egitea proposatu zuen ABko Juan Meokik azken baztarrean. Alkateak hori ezinezkoa zela erantzun zion, administrazio publikoko lanpostuak legez oposizio-lehiaketen bidez bete behar baitira.

SARA

Bixente Garziaren aldeko sustengu afaria urtarrilaren 23an izanen da Omordian

Jaun erretorak bere kargua utzi du osasun arazok beharturik

ANA MARI, MARTINE ETA FREDERICK

Hasteko, hiru berriemaile berrien partetik saratar guzietan urte berri on desiratzen dautzuegu. Jacqueline Aranburu eta Mixel Gerendiainen lana eskertu nahi dugu, horien bezain ongi entsaiatuko gara egiten. Hori lortzeko dei egiten dizuegu, zuen laguntza beharrezkoa baitugu herriaren berri emateko. Elkarte baten partaide izan ala ez, edozein berri nahi baldin baduzu agertarazi guregana etorri.

Bixente Garzia

Urtarrilaren 23an, larunbatarekin, gaueko 8etan Omordian herriko BIGA komiteak Bixente Garziaren sustengu afaria antolatuko du. Ehun liberen truk, herriko preso eta bere



Bixente Garzia saratarra eta Fernando Arburua zuamurdiarra

familia laguntzeko parada izanen duzue, baita gau goxo bat pasatzeko musikak eta bertsoek alaiturik. Ikusiz iaz antolatu zen afariaren arrakasta, antolatzailerek aholkatzen dute lehenbailehen txartelak erostea Herriko Etxeko Edantegian.

Bertzalde, urtats gauez 50 bat lagun, sa-

ratat eta zugarramurdiar bildu ziren Sarako Herriko Etxearen aintzinean Presoen Euskal Herriratzea eskatuz. Honen ondotik presoen aldeko saskia zozketatu zen. Honen irabazlea Nerea zestoarra izan da.

Bai Euskarari

Bai Euskarari kanpainaren karietarak la-

purtarrek Miarritzeko Agileran genuen hitz ordua eta bertan 6.000 lagun baino gehiago bildu ziren, horien artean saratar andana bat, nola ez!

Euskal departamenduaren eta euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpaina

Euskal Departamendua eta euskararen ofizialtasuna galdegiteko sinadura bilketa hasia da herrian. Jadanik saratar ainitzek izenpetu dute Tabako-dendan, Trinketean edo Herriko Etxeko edantegian dagoen eskaera. Izenpetua ez dutenentzat, urtarrilaren 23an, egun guzian, Sarako plazan mahain bat izanen da sinaduren hartzeko, bai eta xehe-tasunak emateko ere.

Jaun erretorak bere kargua utzi berri du

Osasun arazok beharturik, Mixel Idiartek bere kargua utzi behar izan du urte hondar huntan. Halere, sendatuko delarik igandeko mezarat etortzeko asmoa du. Urtarrilaren 15a arte, nahi dutenek elkartasuna erakuts diezaiokete, Herriko Etxean ezarri eltze itsuan beren

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Mendi Ostata

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdioko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

IZASKUN

MASAIA ZENTRUA

- **Kirol Masaia**
 - Besoa, ukalondoa, belauna, zurmiaoa
- **Bizi masaia**
 - Zerbikalak, lunbarrak
- **Erlajazio masaia**
 - Gibar kontrakzioak

© 948 581399
Aita Donostia, 9 - I. ez. • ELIZONDO

ARGIBEL OPTIKA

© 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

SENPERE

Senpertarren lautik bat mintzo da eskuaraz karrikan EKBren neurketaren arabera

Adinekoen %72ak erabiltzen duen bitartean, gazteen %3ak bertzerik ez

FRANCK DOLOSOR

EKB, Euskal Kultur Batzarrak inkestak egin ditu berrikitan jakiteko zonbat jende eskuaraz mintzo den karrikan. Ikerketa Euskal Herria osoan egin dute, Lapurdin ere bai. EKBren inkestaren arabera Senperen jendeen %23a mintzatzen da eskuaraz karrikan.

Ondoko herrietan, xifreak aintz aldatzen dire: Saran %27, Uztaritzen %30 eta Ezpeletan %35; bainan Urruñan %5 eta Azkainen %3.

Berriki egin den inkestaren arabera, senpertarren laurden bat mintzatzen da eskuaraz karrikan. Aldaketa aintz bada adina begiratu: haurrak %7, gazteak %3, helduak %19 eta adinekoak %72.

Telethon

Abendoaren 4 eta 5ean, 12garren Telethona iragan da dirua biltzeko gisa eritasun genetikoaren inguruko ikerketak finantzatzeko. Aurten herritarrek 450 milion libera hi-



Klaseko lagun afariak

Berrikitan senpertarrek afariak egin dituzte klaseetako lagunekin. Goitian berrogoi urte bete dutenak, senar andereekin ageri dira eta ondoan hogoi urte bete dutenak. Studio de la Nivelle



tzeman dituzte, gan den urtean baino 56 milion gehiago. Gure departamenduan berean, kasik 7 milion libera bildu dituzte. Telethonaren kari, jaialdi bat iragan da elizan abendoaren 4an iluntzean. Parte hartzaileen artean eskoletako haurrak, Emak-hor musikari eta kantari talde-

ak, herritarrak eta Zikrolatz euskal dantza taldea bildu dire. Elkartasun arrats ederra izan

dugu. Ez dezagun ahantz herrian zonbateritasun genetikoak jasaten dituztela.

flash

❖ **Dios te salbe**
Diostesalbe usaia aurten ere Senpereko bi gazte ekipek ospatu dute etxe etxe. Herriko TTIPI-TTAPAKO irakurle guzieren urte berri on!

❖ **Senpereko su-hiltzaileek**
formakuntza bat proposatu dute otsailaren 2tik goiti. Formakuntzak 16a arte iraunen du. Erakutsi nahi da zoin diren lehen jestuak sokorriak ekartzeko. Xehetasunak, 0559545350 eta 0559541099.

❖ **11. Korrika**
Hamekagarren Korrika prestatzen ari da AEK gau eskola. Aurten martxoaren 19tik 28ra arte iraganen da eskuaraz lasterkaldia. Herrian martxoaren 20an pasatuko da.

❖ **Euskararen aldeko agiria**
Iruñean sinatu da. Euskal Herriko 22 batasun ezagunek parte hartu dute, hauen artean Eric Dolosor eta Jean Michel Barnetxe senpertarrak. Agileran ere ikusi genituen, Bai Euskarari kanpainaren karietarat. Jean Aviron Bayonnais kirol ekipako burua da eta Eric ELB Euskal Laborarien Batasunako arduraduna. Biak Senpereko familietarik ateratzen dire.

Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gartzainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gartzaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kidetz berri bat!
7, Portuko KARRIKA-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

ZUGARRAMURDI

Dantxarinearako errepidea moldatuko da

Lori-benta zenan eraikuntza-materialak salduko dituzte

KORO ETA MARGARI

Iduri du azkenean Zugarramurditik Dantxarinearara doaien errepidea moldatuko dela. Nafarroako Boletinean kontratistak aurkezteko baldintzak etorri dire: Obrak karretera zabaldu eta moldatzeko izanen dire eta denetara 296.878.879 pta gostako dira; lanak akitzeko urte terdiko epea izanen da. Kontratistek astelehenerako aurkeztu be-

har zituzten proposamenak eta 21ean jakinena da zeineri ematen zaizkion lanak.

Akelarre elkarteak egoitza berria

1998ko azkeneko igandean Akelarre elkarteak egin duen egoitza berria inauguratu zen. Azketako aparkalekuko bazter batean bi pisuko etxea egin da. Lehenbiziko pisuan komunak eta dutxak jarri dira eta bilera eta jende



Eguberrietako ospakizunak eskolan

Abenduaren 22an ospakizuna egin zuten eskolako haurrek.

guti biltzen dituen ekin-tzak eginen dira; behetik pisua biltegi bezala erabiliko da.

Eraikuntza-materialak

Olasur auzoan orain arte Lori-benta bezala ezagutzen ginuena, hemendik aintzina bertze izen batez ere ezagutuko dugu: "Azulejoen


benta". Iamait et Ixabelek erretreta hartu ondok, betitik ezagutu dugun Benta etsi eta M^a Luixa, beren alabak, eraikuntza-materialak saltzeko denda bat jarri du; zeramika, baldosak, azulejoak, adokinak, terrakotak... fabrikako zuzeneko prezioetan. Denda urtarrilaren 2an edeki da (948 599024).

Eguberrietako zozketa

Urdazubi-Zugarramurdiko eskolak Eguberrietan egin zuen 11 sarien zozketen zenbakiak hauek dituzte: 0105, 1335, 1355, 0706, 0837, 3773, 3478, 3056, 3448, 4498, 3673.

Zure zenbakia sari-duna bada, deitu 948 599170ra.

ASCAT  MN 
Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA



zure etxebizitzako zaindaria

ETXEBIZITZA ASEGURUA

Zure etxebizitzan behar dituzun garantia guztiak dituzu gure etxebizitza aseguruan


ASEGURUAK

